IBILBIDEA 9 GR-1

FITXA TEKNIKO

ZAILTASUN MAILA: ■ ZAILA

ABIAPUNTUA: Urizaharra (Araba)

HELMUGA: Urizaharra (Araba)

IBILBIDEA: Urizaharra, GR-1, Pipaon, Kantabriar mendilerroa, Lagran, GR-38, Jaunden gaina, Loza, Urizaharra

PROFIL



DISTANTZIA:
34,250 km

METATUTAKO DESNIBEL POSITIBOA:
819 m

GUTXI GORABEHERAKO IRAUPENA:
4:15

DESKRIBAPENA

Ibilbide paregabe hau baso-pistetatik igarotzen da, eta Arabako Mendialdeko alde mendebaldekoenera hurbiltzen gaitu. Urizaharrean, irten aurretik, hegoaldeko ate gotortua ikusiko dugu eta Pipaonen, berriz, Usatxi Museo Etnografikoa bisitatu ahal izango dugu. Lagranerako bidean, ibilbidea Kantabriar mendilerroko eta Toloñoko hegaletako pagadi zakarretan barneratzen da. Ibilbide honekin garai batean inguruko herriak lotzen zituzten bide zaharrak ezagutuko ditugu. Errepidez egin beharreko zatietan kontuz ibiltzea gomendatzen da.

Ibilbide honek Urizaharra herrian [km 0] du abiapuntua. Plaza Nagusitik mendebalderantz abiatuko gara eta metro gutxira gure kokapenaren berri eta inguruari buruzko askotarizko informazioa ematen duten bi informazio-taula aurkituko ditugu.

Bi taula horien eskuineko kaleari jarraitu eta, metro gutxira, A-2124 errepidera iritsiko gara. Herrerako mendaterako noranzkoan metro gutxi batzuk egin ordu ko, ezkerrerantz joko dugu A-3130 errepidean, Pipaonerako noranzkoan. Ezkerraldean agertuko zaigun lehenengo lursaila utzi eta hurrengoa hartuko dugu, handik 200 bat metrora. Pista errekatxo baterantz jaisten da, eta, zabortegi moduko batera sartu aurretik, eskuinerantz joko dugu.

Soro txiki bat inguratuz, zuzenean basora sartzen den bidezidor estu bat hartuko dugu. Berehala baso txiki horretatik irten eta, soroen bazterretik jarraituz, aurrerago berriz ere errepidea hartuko dugu. Errepidean barrena ezkerrerantz egingo dugu eta 100 bat metro egindakoan eskuinetik irteten den pista bat ikusiko dugu. Hori hartu behar dugu.

Hortik aurrera, Pipaonerako bide zaharrean barrena joango gara; pikkanaka gora egiten duten pista ona da. Lantegi zahar bat utziko dugu gure ezkerraldean, eta, hesi metaliko pare bat zeharkatu ondoren, berriz ere errepidearekin topo egingo dugu. Ezkerrerantz joko dugu 300 bat metroz errepideari jarraituz, Pipaonerako bidegurutzeraino. Hori hartu gabe, bidegurutzea utzi eta Lagranerako noranzkoan, gure eskuinetik irteten den pista hartuko dugu. Pipaoneraino eramango gaitu [km 9,60]. Herrira sartu gabe, lehenengo etxearen aurrean, bat-batean ezkerrerantz egingo dugu. Pikkanaka Kantabriar mendilerrora igotzen den pista bat hartuko dugu. Beti zuzen jarraituko diogu, gure eskuinetik perpendikularki irteten diren pistak hartu gabe.

HARRERA PUNTUA Urturiko Golf Zelaia, Arriba auzoa, Urturi (Álava-Araba) **T.** 945 378 262 **E.** izki@euskadibttzentroak.com

DESKRIBAPENA

Hesi metaliko batera iritsiko gara. Hori zeharkatu eta gora jarraituko dugu. Metro batzuk egin ondoren, bidegurutze bat topatuko dugu, eta eskuinerantz hartuko dugu, oraindik ere malda handiago bati jarraitzeko. Bigarren hesi metalikora iritsi aurretik, ezkerrerantz hartu behar dugu gure ezkerretik irteten den bidezidor estu batetik. Igoera teknikoa eta gogorra datorkigu ezpel-baso baxuaren artean.

Hala, altuera hartuko dugu eta, nahikoa goian gaudela, Kantabriar mendilerroaren altuera erditik pagadi eder baten erditik igarotzen den pista on bat hartuko dugu. Hesi metaliko bat igaro ondoren, bidegurutze handi batera iritsiko gara. Hor eskuinerantz joko dugu, gorantz, gorago beste pista on bat hartzeko. Ezkerrerantz, erraz egingo dugu aurrera, bidegurutze batera iritsi arte. Han eskuinerantz biratuko gara altuera ez galtzeko, eta beste horrenbeste egingo dugu hurrengo bidegurutzean ere.

Laster Cruz del Castillo mendira igotzeko bidegurutze [km 15,75] handi batera iritsiko gara. Hor ezkerrerantz joko dugu eta Lagranerako jaitsierari ekingo diogu. Kontuz hemen, jaitsiera aldapatsua eta luzea baita, teknika ona izanez gero gozatzeko aukera izango dugun arren, baita goratutako bihurguneak hartuta ere.

Basotik irtendakoan, zuzenean Lagraneraino jaisten den nekazaritza-pista bat hartuko dugu. Lagranen [km 18,84] sartu eta Plaza Nagusian ezkerrerantz joko dugu, A-3130 errepidea gurutzatu ondoren. Bi etxeren arteko harrizko arkuaren azpitik igaroko gara eta, gero, garbitegitik. Jarraian, bira hartuko dugu eskuinerantz irteten den lehenengo pistan. Zabortegi moduko bat utziko dugu eskuinaldean, eta pixkanaka igotzen hasiko gara. Bidea nabarmena da, baina pagadiko igoera gogorra egiten da poste handi batekin ongi markatutako bidegurutze handi batera iritsi arte. Orain ezkerrerantz joko dugu, Jaunden mendirantz [km 24,50].

Gailurreraino igotzen den bidezidor txiki bat utzi ondoren, Lozarako jaitsierari ekingo diogu. Pinudi baten erditik, suebaki perpendikularrek zenbait aldiz gurutzatzen duten pistan barrena zuzen jarraituta, Loza [km 30,30] herriraino iritsiko gara laster. Herriko plazara iristean, iturria eskuinaldean utzi eta ezkerretik behera egiten duen eta herritik irteten den kalea hartuko dugu, Urizaharrerako lotura-gunera iritsi arte (handik etorri gara hasieran). Lotura-tarte hori egitea bakarrik geratzen zaigu abiapuntu izan dugun Urizaharrera iristeko [km 34,25].

HARRERA PUNTUA Urturiko Golf Zelaia, Arriba auzoa, Urturi (Álava-Araba) **T.** 945 378 262 **E.** izki@euskadibttzentroak.com

BTT EUSKADI ZENTROA

IZKI MONTAÑA ALAVESA

MAPA



Testuak eta mapak: **Geotech S.L.**
Arabako Teknologi Parkea, Albert Einstein 44, Eraikina E6, 01510 Miñano (Álava-Araba)
T. 945 010 949 **E.** info@infogeotech.com

www.btteuskadi.net

IBILBIDEA 9 | GR-1 | 3/3

HARRERA PUNTUA Urturiko Golf Zelaia, Arriba auzoa, Urturi (Álava-Araba) **T.** 945 378 262 **E.** izki@euskadibttzentroak.com